



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY
2024/01/04



LESAKAKO UDALA

Plaza Zaharra, 1
31731 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
Telf. 948637005
www.lesaka.eus
lesaka@lesaka.eus

NIF: P3115200B

SECRETARIA GENERAL

ALKATEAREN EBAZPENA.

Lesakako alkateak ebazpen hau onartu du:

“LEKUALDATZE-LEHIAKETA, MEREZIMENDU-LEHIAKETAREN BIDEZKOA, BEHIN-BEHINEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO ETA FINKATZEKO PROZESUETAN. ADMINISTRARI OFIZIAL LANPOSTUAK LEKUALDATZE-LEHIAKETA BETE GABE UTZI DELA DEKLARATZEA.

2023ko azaroaren 25ean, Alkatetzaren 526. Ebazpena eman zen, eta horren bidez, deialdia onetzi zen, administrari ofizial lanpostuak merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez betetzeko, hain zuzen ere, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesuan eskainitako lanpostu hutsak, jarraikiz uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legeari (foru lege horren bidez neurriak hartzen dira egonkortze prozesuak gauzatzeko Nafarroako Administrazio Publikoetan, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz –lege horrek hizpide ditu enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak–).

Deialdia eta haren oinarriak argitaratu ziren 2023ko 263. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 21ean.

Ikusirik adierazitako lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko eskaerarik ez dela aurkeztu ezarritako epean.

Horiek horrela, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

- 1.) Deklaratzea Udaleko administrari ofizial lanpostuak hutsak lekualdatze-lehiaketan eman gabe gelditu direla, behin-behineko enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, 20/2021 Legeari jarraikiz (lege horrek hizpide ditu enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak).
- 2.) Agintzea ebazpen hau argitara dadila Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web atarian, behar diren ondorioak izan ditzan.



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko idazkaria / Secretaria del Ayuntamiento de Lesaka
MARIA JOSE LARRYOZ ARIZTEGUI
2024/01/04



LESAKA

Egiatzapen-aseguru kodea: AECA A3MF TXAT ATCK L3KV

Resolución Nº 8 de 04/01/2024 "Administrari-ofizial lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bete gabe utzi dela deklaratzeko." - SEGRA 15545

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.lesaka.eus/> 1tik 1 orrialdea